

Ekainak 8 Galdaramiñoko IGOERA



EGUTEGIKO BESTE MARTXA BAT? EZ MENDI-MARTXA BEREZIA DUGU HAU!

Kutxabankeko langileoi eta ingurukooi lagun berriak ezagutzeko aukera emango digun mendi-martxa:
ATZEGIKO mendi-taldeko kideak hain zuzen ere.

MENDIAK GUZTIOK ELKARTZEN GAITU. DESBERDINAK IZANIK ERE, ZALETASUN BERAK ELKARTU EGITEN GAITU.

Eta hori gutxi balitz, **ATZEGIKO sukaldari-taldeak** martxako gune batetan jaki eta edariak emango dizkigu.

Hona hemen **Kutxa Solidarioak** luzatzen dizuen proposamena:

- Donostiatik Eibarrera autobusez elkarrekin joan (8:30etan Anoetako Xanti Hotelean)
- 9:30etan abiatu, taldean ibilaldi osoa egiteko. Bi mendi tontor egingo ditugu: Galdaramiño eta Topinburu (10 Km)
- 11:30ak inguru ATZEGIKO sukaldari-taldearengana iritsi (Azurtzako gunean)
- 13:30 inguru helmugara iritsi
- 14:00etan sari banaketak
- 15:00 – 17:00: bazkaria, Iruki Sagardotegian (10€)
- 18:00etan Donostiara itzuli (Anoetako Xanti Hotelera) (joan-etorria: 10€)

Bi aukera dituzue:

**ibilaldia gurekin egiteaz gain elkarrekin autobusez joan eta bazkaltzea,
edota zeuon kasa joatea ibilaldia soilik gurekin egitera**

Hona hemen **martxaren zenbait ezaugarri:**

- Urtero Eibarko Klub Deportiboak, Urki auzoko jaietan, doaneko **mendi lasterketa** herrikoia antolatzen du, 14,5 Km eta 1.000 metrotako desnibel positibokoa
- Antolaketa-lanak, auzoko herritar guztien parte-hartzeari esker burutzen dira
- Helburuak, mendizaletasuna eta kirol zaletasuna areagotzea, gizarte inklusiboa bultzatzea eta osasuna hobetzea dira
- Honela bada, aurtengoan ere, mendi-lasterketari, **mendi-martxa inklusiboa** gehituko zaio
- Hiru tontor igoko dira mendi-lasterketan: Galdaramiño (669m), Azkonabitza (726 m) eta Topinburu (590 m)
- Mendi-martxa 9:30etan abiatuko da, eta mendi-lasterketa, berriz, 11:00etan
- Mendi-lasterketa lehiaketa denez, eguerdian sari-banaketa izango da
- Informazio gehiago: <http://www.mendilasterketa.blogspot.com>

ANIMATU ZAITEZ! Ekainak 4 azken eguna

Argibideak eta izen-ematea: Garbiñe Etchezarreta (943.00.10.56) info@gipuzkoasolidarioa.info

